

Galderak 2024/25



KUTXA
FUNDA
ZIOA



OIASSO
MUSEOA

Nortzu ziren
neandertalak? Gure
arbasoak ziren?

zer nola
nork
?



Erantzuna:

**Maria Fernanda
Sánchez Goñi**

Bordeleko Unibertsitateko Irakaslea


Kaixo. Ba al dakizue nor ziren gure
arbaso neandertalak? Bada, Europan
duela 400.000 urte baino gehiago
azaldu zen giza espezie bat, duela
37.000 urte inguru desagertu zena.
Fisikoki, oso mozkoteak ziren gure
aldean, garezur luzexka zuten,

ia ez zuten kokotsik, eta oso betzulo nabarmenak zituzten.

Eta ba al dakizue non bizi izan ziren? Zer eskualdetan bizi izan ziren?
Bada, Iberiar penintsularen hegoaldean; alegia, hemendik oso gertu.
Zergatik desagertu ziren, baina? Homo sapiensa Afrikatik lur berrien
bila atera zenean desagertu ziren: neandertalekin topo egin zuen, eta
bi espezieak baliabide berak lortzeko lehiatu ziren, landare berak
biltzeko eta animalia berak ehizatzeko. Homo sapiensak irabazi zuen,
gure espezieak, baina, aldi berean, neandertalekin nahastu zen,
haiekin hibridatu zen, eta seme-alabak izan zituzten. Horrexegatik,
neandertalak ez dira desagertu guztiz: gure zeluletako geneen % 2
inguru neandertalak dira.

Erromatar garaian
emakumeek lan
egiten zuten?
Lan garrantzitsuak?

zer hola nork
?



Erantzuna:

Cristina Rosillo López


Sevillako, Pablo Olavide Unibertsitateko
irakaslea

Parte hartzen al zuten
emakume erromatarrek bizitza
ekonomikoan? Bai, maila
guztietan. Lekukotasunen
arabera, emakumeek jarduera
ekonomiko xumeetan
parte hartzen zuten.

Adibidez, harakinak eta okinak ziren, eta, era berean, askoz
ere garrantzi handiagoko merkataritzan jarduten ziren,
anfora hauetan ikus dezakegunez: ardo salerosketan,
adreiluen fabrikazioan, portuetan... Alegia, bai, emakumeek
Erromako bizitza ekonomikoan parte hartzen zuten, erabat!

Erromatar
garaian tatuajeak
egiten ziren?

zer nola
nork
?



Erantzuna:

**Elena Miramontes
Seijas**

Irakaslea eta ikerlaria.
Erromatar Garaiko Ohialetan Aditua

Ba al dakigu antzinatean tatuajerik egiten zen? Baiezkoan, zergatik egiten ziren tatuajeak? Printzipioz, bai. Baditugu antzinako metodoa erabiliz tatuatu zituzten gorpuzkiak, azalean orratz bat kolpekatuz egindako tatuajeak, eta, printzipioz,

jabeek markatutako esklaboak zirela uste dugu, edo iheslariak edo krimen batengatik kondenatutako pertsonak, jende guztiak egin zutena jakin zezan markatuak. Inperioaren bukaera aldean, baditugu Legioaren enblema tatuatzen zuten soldaduak ere; agian, besterik gabe, Erromarentzat lan egiten zutela erakusteko egiten zuten tatuajea, asko Inperiotik kanpoko mertzenarioak baitziren. Azkenik, beste batzuek beren burua jainko edo jainkosa bati eskaintzen zioten, edo halako erromesaldi bat egiten zuten, eta jainko edo jainkosaren sinboloa tatuatzen zuten, edo erromes joandako lekuarena.



Zertarako
erabiltzen
ziren anforak?

zer nola
nork
?




Erantzuna:

Jordi Pérez González

Alcala Unibertsitateko Irakaslea

Irundar maiteok, ikusi
zer aurkitu dudan hemen:
ardo anfora bat. Ba al zenekiten
erromatarrek horrelako
zeramika erabiliz merkaturatzen
zituztela beren produktuak
itsasoan?

Begira. Ardoa hemen sartzen zuten. Beren formari esker,
itsasontzien barruan, edukiontziak elkarri ahokatzen zitzaizkion,
eta, behin helmugara iritsita, merkataria edukiontzi txikiagoetan
isurtzen zuen edukia. Gero, anfora berriro erabil zitekeen,
ura bota besterik ez baitzen egin behar. Espero dut gustatu izana.



Erromak bazuen
beste lurraldeekin
harremanik?



Erantzuna:

Jordi Pérez González

Alcala Unibertsitateko Irakaslea

Irundar maiteok, planteatu
al duzue inoiz ea Erroma
bizilagunekin tratuan ibiltzen
zen? Bada, bai. Erroma
antzinateko Txinarekin tratuan
ibiltzen zen. Orduan,
Serika esaten zioten Txinari.

Lurraldeak eta produktuak izen bera zuten, eta Serikako hiriburua
Sera Metropolia zen.

Egia al da antzinateko Egiptoko inude batek zaintzen zuen umea hiltzen bazitzaion beste haur batekin ordezkatzeko betebeharra zuela?

zer nola
nork



Erantzuna:

Maddi Izaguirre Ayestarán

UPV/EHU. Universidad Paris 1-Panteón-Sorbona

Egia esan ezin dugu egoera hau guztiz orokortu, baina badirudi Egiptotik datozkigun papiroetako kontratuak diotenez, bada nahiko praktika ohikoa zen honako hau. Azken finean inude hauek, sinatzen zuten kontratuetan jartzen zituzten klausulak eta bete-beharrak, nahi ta nahi ez bete behar zituzten; eta hala jartzen

bazuen kontratuan, hori bete behar zuten. Kontua da, papiroen kopuru nahiko esanguratsu batek, aipatzen dituen inudeek zaintzen zituzten haurrak, hau espositoak zirela edo kutzako haurrak, hau da bere familiak abandonatu zituen haurrak, eta hirugarren pertsona batek, hau da kaleko pertsona batek jasotako haurrak, etorkizun batean haur hori esklabo bihurtzeko helburuarekin. Orduan, pertsona hauei interesatzen zitzaiena zen, haur hori inude hauek hezteak. Eradoskitzea eta hezteak, helburu bakar batekin hau da, lan egiteko gai izan zedin eta esklabu bihurtu zedin. Beraz, berdina zitzaien haur hori izan edo beste bat izan, behar zutena haur bat zen, etorkizunerako esklabu bat. Beraz, pentsatzekoa da familia oneko haurrak, inude batek eradoskitzen bazuen familia oneko haurra ez zela kontratuan horrelako klausularik egongo, izan ere, familia oneko gurasoei beraien haurra interesatzen zitzaien, ez beste edozein haur, bere familiako haurra baizik. Beraz, desberdintasun hau egitea oso garrantzitsua da, haur espositoak edo hiritar haurren artean, batzuk esklabu izateko etorkizuna izango zuten eta besteek berriz, ez.

Zer da fotogrametria?

zer nola
ork



Erantzuna:


Jose Martínez Rubio

Valladolideko Unibertsitateko Irakaslea.
Topografoa

Kaixo, ni José Martínez naiz, topografoa naiz, eta Valladolideko Unibertsitatean lan egiten dut, arkeologia-ondare arkitektonikoa edo argazkien bidez jaso daiteken beste edozein ondare ukigarri dokumentatzen duen laborategi batean. Nire espezialitatea 3Dren bidez eta irudietan oinarrituz objektuak berreraikitzea da.

Hori da fotogrametriarekin lortzen dena, eta argazkietan ikusten ditugun objektuetatik informazio geometrikoa ateratzea ahalbidetzen duena. Eta horrek balio die arkeologoei beren azterlanetan objektua bera ordezkatu ahal izateko. Hemen, adibidez, momia bat ikusten ari gara, ikus ezazue zein errealismoz, zein hurbilketa-mailarekin, zein fideltasunez azter dezakegun momia honen zati bakoitza eta gure eskuetan bagenu bezala ikertu. Oso interesgarria da jakitea ondareari eskainitako teknologien mundu berri hau guztia oso gauza bitxiez elikatu dela, esate baterako, bideojokoez, bideojokoen teknologiaz, ordenagailuen bidez zuek jolasteko egin den aurrerapen horretaz guztiaz, funtsezkoa eta behar-beharrezkoa izan da arkeologoek ere tresna aurreratuez gozatzeko aukera izan dezaten, eta halaxe dute orain. Nire topografo lana baliabide horiek guztiak, teknologia arloan hain prestatuta ez dauden arkeologoen eskura jartzea da. Eta, aldi berean, gauza bakoitza munduko leku oso zehatz batean jartzen laguntzen diet, hau da, objektuen posizio globalarekin lan egiten dugu, eta hori funtsezkoa da objektu horiek arkeologian duten esanahia ulertzeko.

Andeetako Museoko
bitxikeriak: Animaliak
inka zeramikan duten
garrantzia ikusi nahi?



Erantzuna:


Pamela Maldonado

Txileko Andeetako Arkeologia Museoa

Kaixo, nire izena Pamela Maldonado da, Andeetako Arkeologia Museokoa naiz, eta hemen oso erakusketa polita dugu Inkei buruz. Inka, Hego Amerikan inperio handia egin zuen herria da.

Museoan oso deigarria da, eta batez ere hurrei jakin-min handia pizten die hemen dauden piezetako batzuk, eta bereziki hegazti batzuk dituztenak, adibidez, hemen dauden ahate hauek. Eta agian galdetuko diguzue zergatik ote ditugun ahateak zeramikazko piezei eskainitako bitrina baten barruan? Eta nik ontzi hau erakutsi nahi dizuet, Inkei asko gustatzen zitzairen beren objektuetan animalien elementuak jartzea. Beraz, adibidez, Chua izeneko plater hau daukagu, ornitomorfa formakoa, hau da, hegazti formakoa. Honek buru txiki bat du, begitxoak ere baditu, pikotxa dauka eta atzean buztan bat, eta horrek ahate baten antz handia ematen dio. Eta hemengo beira-arasa honetan, hori da hurrei asko gustatzen zaiena.

Andeetako Museoko
bitxikeriak: Inken
mailuak ezagutu nahi
dituzue?




Erantzuna:

Pamela Maldonado

Txileko Andeetako Arkeologia Museoa

Kaixo, nire izena Pamela Maldonado da, Txileko Andeetako Arkeologia Museokoa naiz eta hurrei, hemen, asko gustatzen zaizkien pieza batzuk erakutsi nahi dizkizuet, bereziki atzean dagoen mailu hori.

Ondo erreparatzen baduzue, egurrezko kirtena du, harrizko burua du eta larru batez lotuta dago. Benetan interesgarria da, gaur egun erabiltzen ditugun tresnen antz handia duelako, hala nola, gaur egungo mailua edo zurmailu baten oso antzekoa da. Eta antzinako garaietan, dialguitek eta inkek, asko erabiltzen zituzten meatzaritzan, mea txikitu handik kobrea eta mineralak ateratzeko, eta horrela tresna finagoak egin ahal izateko, besteak beste, aiztoak, uhak eta abar.



Zer dira kafe
ale begiak dituzten
aurpegitxoak?



Erantzuna:

Pamela Maldonado

Txileko Andeetako Arkeologia Museoa

Kaixo, nire izena Pamela Maldonado Andeetako Arkeologia Museokoa eta zeramika, nekazaritza eta ingurunea finkatu berria zenean hemen bizi ziren pertsonen egindako zeramika pieza pare bat erakutsi nahi dizkizuet.

Amazoniako kultura iritsi zen honaino eta eragin handia izan zuen Txileko lurretan bizi ziren herritarren artean. Horregatik hemen aurpegitxoak dituzten objektu asko ikus ditzakegu. Ez dakit ondo ikusi ote ditzakezuen. Hementxe, ikusten, begi txiki batzuk dituzte. Bekainak dituzte. Sudurra dute. Belarritxoak, zulodunak, eta ahoa ere badituzte. Eta tankera honetako piezei kafe ale begiak dituzten aurpegitxoak deitzen zaie. Begiak kafe aletxo baten tankerakoak direlako, eta mota askotakoak ikusi ahal ditzakezue, baita harrian egindakoak ere.

Espero dut gustatu izana. Agur bero bat Txiletik.

Erromatarrek antzerkia gogoko zuten?

zer nola
nork



Erantzuna:

Aizpea Goenaga

Oiasso Erromatar Museoako Zuzendaria

Erromatarrek eta antzerkia? Erromatarrei antzerkia ikaragarri gustatzen zitzairen. Baina jakina tradizio hau, antzerkia egiteko tradizioa, grekoengandik jaso zuten. Grezian antzerkia sekulako garrantzia zeukan baina antzerkia erabiltzen zen kritika soziala egiteko, filosofía... halako gai filosofiko eta handiak jorratzeko.

Tragediak izaten ziren, baita komediak ere baina erromatarrei bereziki gustatzen zitzaiena komediak ziren. Barre egitea, hori zen gustatzen zitzaiena. Bai egiten zuten tragediak, nola ez? Baina batez ere batez ere komedia. Ondo pasatzea gustatzen zitzairen erromatarrei eta han elkartzeko ziren antzokian parre eta parre egiteko. Hori da gustatzen zitzaiena. Eta erromatar garaian antzoki handiak zeuden jakina, antzoki erraldoiak, ba esate baterako Meridan dagoena bezalakoa. ¿Eta Oiassoko antzokia nun ote dago? Hor Irungo kaleeren baten azpian gordeta egongo da. Antzokiak normalean erromatar garaian tontor batean egiten ziren eta horrela bista zoragarriak ziren, ba horrela eguzkia sartzen ikusteko eta horrela antzerkia ikusten zenun bitartean eszenografia natural zoragarria zenuen. Baina hala ere, erromatarrek asko asko zaintzen zuten eszenografia, jantzia... guzti hori asko atondurak guztiak asko zaintzen zituzten. Eta antzerki egile handiak egon ziren Plauto, Seneca esate baterako. Eta asko, asko eta asko. Baina ez zegoen handi hori bakarrik erromatar garaian, ez. Bazegoen ere antzerki mota gehiago. Hurrengoan kontatuko dizuet.

Erromatarrek barre egitea atsegin zuten?

zer nola
nork
?



Erantzuna:

Aizpea Goenaga

Oiasso Erromatar Museoako Zuzendaria

Erromatarrek zertaz egiten zuten barre antzerkian? Egia esan erromatarrei ikaragarri gustatzen zitzairen barre egitea baina batez ere, batez ere exagerazioa edo burla egitea edo esate baterako buru soile barre egitea edo asko gustatzen zaizkien bigarren esanahi hori zuten jokoekin aritzea. Eta asko gustatzen zitzairen ere txisteak kontatzea.

¿Eta beste bideo batean kontatu dizuet antzerki handiak zeudela ezta? Halako antzoki milaka pertsonak kabitzen ziren antzokiak. Baina hala zeuden ere monologistak, gaur egun ezagutzen ditugun monologistak hoiek aktoreak bakarrik edo binaka herriz hiri ibiltzen ziren aktoreak. Eta hauek joaten ziren eta komediantek izaten ziren. Eta normalean kontu kontari ibiltzen ziren, hasten ziren kontatzen ezdaki zeinekin egin ziola besteri halako trampa eta bestea berriz... edo barre egiten zuten ba gizon zahar bat ezkondu zalako neska gazte batekin... horrelako kontuz barre egiten zuten. Eta asko gustatzen zitzairen hori buruz hitz egitea. Eta gauzka oso oso garrantzitsua erromatar garaiko antzerkian batez ere, kaleetan eta herriz herri ibiltzen ziren antzerkigile hauek ez ziren gizonak bakarrik, emakume aktore asko zeuden eta oso onak gainera eta oso ezagunak. Asko gustatzen zaizkien herrian jasotzea aktore hauek eta kontatzen zituzten egiten zituzten bromak eta txisteak eta jendea biltzen zen barre halgara batean. Eta hurrengo herrira joaten zirenean, herri hartako kontuak kontatzen zituzten. Eta hori jendeari grazia egiten zion eta benetan garai hartan oso aktore handiak ziren, bai natzerki handietan eta baita kaleeko antzerkietan ere.

Zer arrisku izan ditzake amatasunak edo erditzeak Erroman?

zer nola
nork
?



Erantzuna:

Juan Melchor

Ikertzaile eta dibulгатzaile historikoa

Gaur hitz egingo dizuet Erroman amatasunak edo erditzeak izan ditzakeen arriskuez. Erroman erditzeko ia arazoak gaur egun izango genituzkeen berberak ziren, hau da, asepsia falta edo horretarako tresna egokirik ez izatea. Gaur egun erraztasun handiagoa dugu, baina garai hartan higiene pixka bat falta zen, eta beraz, erditzeko arriskua ere bazen. Erditzen laguntzen zuten tresnak

ere zituzten forzeps mota batzuk bezala, baina higiene hori falta zen, tresna horien garbitasuna. Bide batez esanda, ozpinarekin edo urarekin nahastutako ozpinarekin ere desinfektatzen zirela. Gaur egun izango genukeen alkohola izango litzateke.

Bada, erditzeko orduan, izango luketen arrisku lehena eta nagusia lekua da.

Normalean emakumeak etxeetan erditzen zuten, ez zegoen ospitalerik gaur egun dagoen bezala. Eta etxeetan aulki edo erditze-aulki txiki bat egongo zen, eta bertan emakumeak hankak zabalduko zituen, eta beste bizpahiru pertsonak lagunduta, hostetrisak, garai hartako emaginak, erditzen lagunduko zuten.

Haurra jaiotzen ari denean, haurra normal badator, ez dago arazo handirik, dena oso ondo garatzen baita. Baina arazo bat dagoen unean, mediku bati abisatu egin behar da, forzepsekin haur hori ateratzen laguntzeko. Nagusiki izan dezakeen arriskua, ondo ez badator, forzeps bidez lagundu behar dela eta forzeps horiek kalte egin diezaiokeela, bai amari eta baita semeari ere da. Orduan egin behar dena da aurreko hilabete horietan eskuz lagundu, gaur egun emaginek egiten duten bezala haurra ondo jartzera, halako arazorik izan ez zezan. Hortik aurrera, ia ez zegoen erditzeko arazorik. Egin beharko genukeena uzkuertze-mugimendu horiekin laguntzea izango litzateke, fetuari irteten laguntzeko, eta ez litzateke konplikazio gehiago egongo. Orduan, izango ziren arazoak? Asepsia, hau da, behar adinako higienerik ez izatea eta erabiliko ziren tresnak ere desinfektatuta egotea. Horrekin ederki salbatuko genuke haurraren eta amaren bizitza.

Antisorgailuak erabiltzen al ziren erromatarren garaian?

zer nola
hork



Erantzuna:

Juan Melchor

Ikertzaile eta dibulгатzaile historikoa

Kaixo, Juan Melchor dut izena. Ikertzaile eta dibulгатzaile historikoa naiz eta gaur antisorgailuez hitz egingo dizuet, Antzinako Erroman zituzten sistemez. Bada, antisorgailuak gaur egun bezalakoak ziren gizonezko-entzat eta emakumezkoentzat.

Garai haietan preserbatiboak animalien tripekin eginak zeuden, kasu honetan ardien tripekin, hau da, katusarekin, eta katus zati hau olio edo krema batzuekin bustitzen zen zuzenean gizonak jartzen zuen. Krema horiek belarrez eginda zeuden eta espermatozoidak ziren, hau da, bakterioak eta haiek ukitzen zituzten organismo guztiak hiltzen zituen.

Emakumeen kasuan, aniztasun handiagoa zegoen, pesariok, donut txiki baten forma duen antisorgailua, baginan sartu eta umetokiraino iristen zirenak. Hauek zulo txiki bat zuten nondik krema batzuk sartzen ziren. Krema horiek funtzio berbera betetzen zuten, hau da, espermatozoidak horrela ez ziren umetokiaren hondoraino iristen. Belakiak ere erabiltzen ziren. Artilezko bolak erabiltzen ziren, eta horiek ere hainbat krema eta likidotan bustita sartzen ziren. Hori da haurdun ez geratzeko modurik errazena. Gero, beste sistema tradizionalago batzuk, baita arriskutsuak ere. Baina, oraingoz, funtsezkoa den horrekin geratu, besterik ez. Emakumearentzat eta gizonezkoarentzat haurdun ez geratzeko sistemak bazeuden.

**KUTXA
FUNDA
ZIOA**



**OIASO
MUSEOA**